

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritza, 2019-2022 urteetarako Esku Hartze Sozialari Buruzko Gipuzkoako III Lan Hitzarmenaren 2022rako soldata berrikuspenaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (20100025012011 kodea).

AURREKARIAK

Bakarra. 2022ko otsailaren 25ean, Gipuzkoako Esku Hartze Sozialari Buruzko sektoreko hitzarmen kolektiboaren batzorde negoziatzaileak aurkeztu du 2022rako soldata berrikuspena, hitzarmenean aurreikusita dagoena.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritza honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboaren erregistro eta gordailuari buruzkoak.

Bigarrena. Sinatutako akordioak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

Bigarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2022ko martxoaren 1a.—Victor Monreal de la Iglesia, lurralde ordezkaría. (1227)

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Delegación Territorial de Gipuzkoa

RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito de la revisión salarial para 2022 del III Convenio Colectivo de Intervención Social de Gipuzkoa para los años 2019-2022 (código 20100025012011).

ANTECEDENTES

Único. El día 25 de febrero de 2022, la comisión negociadora del convenio colectivo del sector de Intervención Social de Gipuzkoa, ha presentado la revisión salarial para el año 2022, prevista en el mismo.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero. La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

Segundo. El acuerdo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

Primero. Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

Segundo. Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 1 de marzo de 2022.—El delegado territorial, Victor Monreal de la Iglesia. (1227)

2022KO GIPUZKOAKO ESKU-HARTZE SOZIALARI BURUZKO III. TAULAK /
TABLAS III. CIS GIPUZKOA 2022

			Urtekoa/Anualidad
Hileko oinarrizko soldata (14 ordainsari) / Salario Base Mensual (14 pagas)	1. Taldea/Grupo 1	2.281,70 €	31.943,91 €
	2. Taldea/Grupo 2	2.068,92 €	28.964,98 €
	3. Taldea/Grupo 3	1.891,55 €	26.481,77 €
	4. Taldea/Grupo 4	1.692,97 €	23.701,66 €
	5. Taldea/Grupo 5	1.513,26 €	21.185,71 €
Antzintasun-plusa/HILABETE (14 ordainsari) / Plus Antigüedad x MES (14 pagas)		47,18 €	660,61 €
Gaueko lanaren plusa/HILABETE (12 ordainsari) / Plus Nocturnidad x MES (12 pagas)		205,52 €	2.466,24 €
Txandakako lanaren plusa/HILABETE (12 ordainsari) / Plus Turnicidad x MES (12 pagas)		205,52 €	2.466,24 €
Gaueko lanaren osagarria/egiazko ORDU / Complemento Nocturnidad x HORA efectiva		4,84 €	
Igandeetako edo jaiegunetako plusa/egiazko ORDU / Plus Domingos y/o Festivos x HORA efectiva		5,44 €	
Esanahi bereziko jaiegunetako plusa/egiazko ORDU / Plus Festivos especial significación x HORA efectiva		9,67 €	
Prestasun-plusa edo zaintza lokalizatuko plusa/egiazko ORDU / Plus Disponibilidad o Guardia localizada x HORA efectiva		3,40 €	
Kilometrajea/KM / Kilometraje x KM		0,34 €	
Laneko arropa/URTE / Ropa trabajo x AÑO		114,27 €	
Erantzukizun-osagarriak/URTE (14 ordainsari) / Complementos de Responsabilidad x AÑO (14 pagas)	1. Tarte/Tramo 1	1.631,38 €	3.534,66 €
	2. Tarte/Tramo 2	3.535,72 €	5.709,84 €
	3. Tarte/Tramo 3	5.710,90 €	7.341,22 €
	4. Tarte/Tramo 4	7.342,29 €	9.516,41 €
	5. Tarte/Tramo 5	9.517,47 €	12.235,38 €

Garrantzi bereziko jaiegunak honako hauek izango dira: abenduaren 24ko 21:00etatik abenduaren 26ko 7:00etara, eta abenduaren 31ko 21:00etatik urtarrilaren 2ko 7:00etara. Bi epe horietan, plusaz gain, egun edo orduko konpentsazioa emango da, 1:1 proportzioan. /

En el caso de los festivos de especial significación, se entiende como tales el periodo comprendido entre las 21:00 horas del 24 de diciembre y las 7:00 horas del día 26 de diciembre, así como el periodo comprendido entre las 21:00 horas del 31 de diciembre y las 7:00 horas del día 2 de enero. En ambos periodos se complementara el plus con una compensación en días u horas que será de 1:1.